

## Euskal Kulturgintzaren Transmisioa

Albisteak

# Josune Zabala, Mintzola Fundazioko zuzendari izendatu dute

2009/05/11

**Mintzola Fundazioa** Villabonan sortu zen, Subijana egoitzan, ahozko tradizioaren behatzaile dinamikoa izateko asmoz, gaurko gizarteak ahozkotasanaren inguruan izan ditzakeen premiak erantzuteko. Martxoaren 26a ezker, eta Mintzola Fundazioak horrela erabakita, Josune Zabala izango da fundazioko zuzendaria, Euskal Kulturgintzaren Transmisioa aditu tituluko lehen aldiko koordinatzailea izan zena.

**Josune Zabala Alberdi** Errezilen jaio zen, Gipuzkoan, 1978an. Euskal Filologian lizentziaduna da, eta eginak ditu doktore ikasketak eta Hizkuntzak Kudeatzeko Unibertsitate Aditu Tituluaren graduondoko ikasketak. Irakaskuntzan eta itzulpenegintzan egin du lan, batik bat. Ahozkotasanari dagokionez, hainbat ikerketa egin ditu, bai Bertsozale elkartearekin eta baita Mondragon Unibertsitatearekin ere.

Argia astekariari aurreratu dionez, ahozkotasanaren beraren inguruko diagnostia egitea izango du lehen eginkizuna zuzendaritza lanean: "Ahozkoak daude, alegia, genero desberdinak, ez ahozkotasan bakar bat: hitzaldia, bertsoa, ipuin kontaketa, esaera zaharrak, elkarrizketa... zer ahozko dauden diagnostikatu behar dugu, eta zer ikertu eta zer bultzatzea nahi dugun erabaki".

Honako erakundeek osatzen dute Mintzola Fundazioa: Bertsozale elkarteak, Euskal Herriko Unibertsitateak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Villabonako Udalak eta Kutzak. Fundazioak, bestalde, Joxerra Garziak egindako txostena du abiapuntu.

Euskal Kulturgintzaren Transmisioa egiten dugunok zorionik beroena eman nahi diogu Josune Zabalarari, gure artean arrasto sakona utzi baitzuen.

